

## IZADIA BIDELAGUN

-I-

Zementu eta asfaltoko txori bihurtua,  
hiriburuko zomorro izatera kondenatua,  
larretxori koitaduak  
non egingo du bizimodua?

Hauts eta ke zikinek aldatu diote lumen kolorea,  
eta zalantzetan dabil, bere buruari galdezka larretxoria ote den.  
Alabaina, bihotzak baietz diotso taupada bakoitzean.  
Ez ikaratzeko eta bereari eusteko diotso, itxura aldaketa gorabehera.  
Hala ere, lortuko al du bizirik irautea?

Ez da inon larrerik ageri,  
ezta bestelako bizilekurik ere, non ez den autobus-geltokia.  
Lurrik ezean, ez du aurkitu zizarerik,  
baina eltxo arrastoak ditu orain janari:  
autobusen erradiadore eta argietan itsatsitako gorpuzkiak.  
Espaloitik salto eta horiek erraz harrapatzen ditu,  
nahiz eta lantzean behin bidaiarien zangoek atzera eragin.  
Horrenbestean, esperantzari lotu dizkio bere barruko min guztiak.  
Noiz arte, baina?

Bihar bai, bihar autobus-geltokia utziko du,  
autobusen antzera, konfiantzaz jantziko du bere burua.  
Arrankatu eta ez du atzera begiratuko.  
Hegoak ez ditu ohituak,  
astunduak baino, denbora luzez astindu eta handik urruntzeko,  
horregatik barruko pisuak nahi ditu askatu,  
beste behin ere bihotza izanik lagun.

Jada ez dago galdera, zalantza edo kezkontzako tokirik;  
azkenik, pisu guztietarik aske, arin-arin,  
hego-haizeak eramango du ezari-ezarian,  
hainbeste amestutako bizitza berrira,  
biziberritzeko aukera emango dion zizpuruaren bila.

-II-

Uso bat kalean gora ihesi  
joan doa goizetik,  
ez jakin arren nora  
biziki mugituz hegoak,  
dena atzean utzirik  
gau beltzaren itzalean.

Goiz gorri eta gori,  
udaberri beteko egunsenti,  
bizitza berriaren argi,  
itxaropenaren hazi,  
usoaren irtenbide nagusi.

Aspertuta doa antza,  
nekatuta eta gogaituta,  
ikusitakoak ikusita  
nahiago du alde egin,  
lehenbailehen zerotik hasi,  
nonbaiten lasaiago bizi.

-III-

Aske dabil ura, erreka eta ibaietan dantzari,  
jolasean loturik lurzoruari.  
Gaztetasunaren garraz apartsu kantari,  
ibilian ibili dabil, bide biribil-erdietatik bihurri, bizi.

Diotenez, heriotzara arteko bidea darama,  
gaztetasunetik zahartzarora,  
arinetik geldora,  
gozotik gazira,  
itsasora.

Haatik, behin itsasora helduta,  
heriotzari ihes egitea lortzen du ozta-ozta.  
Zurrunbiloen zotina,  
korronteen dardara hotza...  
denak ezerezean geratzen dira,  
biziberritzeko asmoa agertu eta berehala.

Gozo nahiz gazi,  
itsasoak berriro egiten ditu urak handi.

## -IV-

Denbora galtzea omen da batzuentzat  
gauaren erdian zeru izartsuari begiratzea.  
Ez al da aldrebes?  
askatasuna irabaztea,  
eta ikus daitekeena baino haratago joaten ausartzea?

Zer bihurtu dira, bada, hiriak?  
Horra, argiaren argian, itsututako esparru itxiak.  
Dagoeneko ez da izarrik geratzen zeru estalian,  
norbaitek lapurtu baititu guzti-guztiak.  
Gainera, inor gutxi ohartu da gaiztakeriaz,  
salbu eta lilurez ohartzeko gai den begirale fina.

Bete-betea asmatu du,  
astia ez ezik, arnasa ere hartzen dakien begirale finak.  
Astia hartu du, astiro-astiro ikuskatu nahi duelako ingurua;  
arnasa, eguneroko zalaparta eta kezka bazterrean uzteko.  
Halatan, liluratzeko gaitasunak ekarri dio galdua zuen askatasuna,  
hiri itsu-putzuetatik urrun, haratago begiratzeko ausardia.

-V-

Gorrotoa dario lurzoruari.  
Lurrun itxuraz jantzirik  
arnastu daiteke hori,  
bero-bero, emeki-emeki,  
ateratzen baita tarte-bazter guztietarik.

Iluntze aldeko ekaitzak iratzarri omen du,  
hainbeste denboraz bare egon eta gero,  
sargoriak eragindako lozorro astunean.  
Saltaka doazen zangoek sumatu dute dagoeneko,  
eta ez dira alferrik jaso begi nekatuak  
mendi inguruetan aldaketa ikusi orduko.

Bada, lurruna gurma da mendi bazterretan,  
eta mendi tontorrak estali nahi baditu ere,  
haizeak irensten du bat-batean,  
ezertarako astirik eman gabe,  
tontorrak lainopean baina begi-bistan uzten dituen bitartean.

Aldarazi dira zango eta begiak,  
pertsona agertu ama-lurraren gainean,  
ikusi ezinaren soineko zatarra erantsita,  
biluzi, euri eta izerdi gozo gaziak soilik aldean,  
ohartu da alferrikakoak dituela materialismo guztiak,  
denak galduko dituelako azkenean:  
botere nahiz harrokeriak.

Igaro da itsu-itsuan ibilitako garaia,  
enparauek zer esan eta egingo mesfidantzan galdutako astia.  
Behingoz, askatu ditu zango eta begiak,  
eta inguruan duenaz zeharo lotsatu da,  
gehienbat, bateko eta besteko zapalketak ikusita.

OLERKIAK

Lotsa ala damua, ezin jakin, bi-biak agian,  
bihotzean nahiz buruan,  
horiek izan ditu hasierako sentimenduak.  
Izan ere, une batez ikusi da larru gorritan.  
Berriro begiratzean, ordea, ohartu da bere errakuntzaz,  
jantzia baitu soinekorik dotoreena: apaltasuna.

Apaltasunari jarraiki heldu zaio eraberritzearen poza,  
kantatzeko gogoia.  
Kantu berria argi aditzen da jada,  
era guztietako gorrotoei gelditzeko esanaz.  
Inorentzat biztutako suak  
behin betiko itzalarazteko asmotan,  
izaki berria kantuz doa  
hoztu nahian lur beroa.

## -VI-

Zebra-bideari so,  
noiz igaroko  
zain dago  
jubilatu multzoa.

Iragan garaietako langile aldra;  
fabriketan zaildu, gogortu zirenekoak,  
aurpegian dituzte igarrian.  
Fabrika, industria handiak...  
den-denak aspaldiko denboretan galduak.  
Zeru grisaren eta ibai ilunaren magalean,  
galdara eta labe handien ahoan,  
ugerrak jandako paisaietan,  
mailuen kolpeen erritmora,  
hazi, bizi, eta eman zuten dena,  
gero hobeto izan nahian.

Zebra-bidearen beste muturrean  
dira gaur egungo langileak,  
bide berria izan behar dena zarpiatzen,  
atzera eta aurrera, indarra eginez,  
porlanez eta alanbrez ondo horniturik,  
abespeluan ari dira,  
gau eta egun lanean.

Gaur, argi dago zerua, urdin garbia,  
bizirik ibaia  
alaitsu antza hiria,  
txukun bazter guztiak:  
lore, zuhaitz, bide gorriak...  
Sortu berri dira, halaber, eraikin ikusgarriak,  
eta beraien leihotetan islatzen da guztia.  
Noizbehinka, bertan islatzen da, berebat, eguzkiaren eta ilargiaren  
argia,

eta, orduan, garden dirudien horrek errealitate gordinari uzten  
dio tokia:  
beltz ilun ageri da bizitzako eszenatokia.

Gaur gaitza da zebra-bidea igarotzea.  
Zinez, urrun daude langileak,  
inoiz baino urrunago egon ere.  
Geroa ez dute sinesten,  
ezpada egunean egunekoa.  
Urruti utzi zuten amaren etxea,  
baita aitaren etxea ere,  
eta anai-arrebena,  
eta maitearena,  
eta seme-alabena...

Baina eszenatokiak kantu berri baten premia du:  
gizaki berriek abestutako kantua,  
bizitzari zentzua ematen dion bakarrari zuzendua,  
azken aldian gehiegi puztu den mundua  
lehertzea eragotziko duen kantu bizi besteko indartsua.

Kantu berria abestuz bakarrik igaro ahal izango da  
aldi berean hain hurbil eta hain urrun dagoen zebra-bidea,  
ezkutatutako egien eta azaleratutako gezurren izatea,  
zuria eta beltza, argia eta iluna, hain nabari egiten dituen  
bidegabekeria,  
iraganaren eta orainaren gaixotasun kronikoa.

Bien bitartean, urrutitik adi daiteke orkestraren soinua,  
gizakiaz besteko izakien musikaz konposatua,  
era-erakoa kantu berriarentzat, perfektua.

*F. Javier Arrieta Idiakez*